

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DEUSEZTATZEAREN ALDEKO NAZINOARTEKO EGUNA 2019.eko AZAROAK 25

“Zenbat emakumek jasaten dauan bizitzaren zama eta indarkeriaren zoritxarra!
Jaunak aske eta askatasun osoz bizi daitezala gura dau”
Frantzisko Aita Santua

Azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzearen aldeko eguna ospatuko dala-eta, gaurko munduko giza eskubideen urraketarik hedatuen, iraunkorren eta suntsitzaileenaren aurkako garrasi diran Frantzisko aita santuaren hitz honeekaz bat egiten dogu.

Zenbakiak gordinak dira, askotan “icebergaren tontorra” baino ez badira be. Gaur arte, indarkeria matxistaren eraginez 51 emakume hil dabez Estatuan; 2003tik hona, 1.027 emakume hil dira euren bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik. Indarkeria horrek, aurton, 43 adin txikiko itzi ditu umezurtz. 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan, 4.564 emakumek era bateko edo besteko babes behar izan eben eta 66ri eskolta emon behar izan jaken. Munduan, hiru emakumetatik batek indarkeria fisiko edo sexuala jasan dau, gehienetan bikotekidearen aldetik.

Nazareteko Jesus ez zan axolagabe agertu giza sufrimentuaren aurrean. Gelditu egiten zan beti, eta tratu txarrak jasaten ebezan personei begiratu eta eskuak ezartzen eutsezan. Batez be, emakumeak duin egin ebazan. Ezin dogu beste aldera begiratu eten barik eragindako hainbeste heriotza, nahigabe eta sufrimenturen aurrean eta ezta guzti hori ezkututzen, isiltzen, eta hainbat bider, justifikatzen dauan hainbeste jarrera, keinu, jokaera, adierazpen eta aurrerexiren aurrean be.

Eleiza lez, gure bizigiroetan, familian, adiskideen artean, auzoan, herrian, lantokian,... ezinbestekoa dogu indarkeria- eta matxismo-era guztiak baztertzea eta gaitzestea, emakumeen duintasuna autortzetik, bardintasun eta askatasunezko hartu-emonak sortuko dabezan balioetan hezte. Guztion ahaleginak batu behar doguz salaketan eta indarkeriaren biktimen aldeko eta prebentzinoaren aldeko neurriak eskatzean.

*Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza
Karidade eta Zuzentasunerako Ordezkaritza
Misinoetarako Ordezkaritza
Bilboko Elizbarrutiko Caritas*

DIA INTERNACIONAL DE LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES 25 DE NOVIEMBRE DE 2019

“¡Cuántas mujeres padecen el peso de la vida y el drama de la violencia! ¡El Señor quiere que vivan libres y con plena libertad!”
P. Francisco

Ante la próxima Jornada del 25 de noviembre por la eliminación de la violencia hacia las mujeres, nos unimos a estas palabras del papa Francisco que claman ante una de las violaciones de los derechos humanos más extendidas, persistentes y devastadoras del mundo actual.

Las cifras hablan por sí solas, aunque en muchas ocasiones no son más que “la punta del iceberg”. Hasta la fecha se elevan a 51 las mujeres asesinadas por violencia machista en el Estado, 1.027 mujeres han sido asesinadas por sus parejas o exparejas desde 2.003. Una violencia que deja este año 43 menores en situación de orfandad. En 2018 en la Comunidad Autónoma vasca 4.564 mujeres necesitaron de algún tipo de protección y 66 se ven obligadas a tener escolta. En el mundo una de cada tres mujeres ha sufrido violencia física o sexual, principalmente por parte de un compañero sentimental.

Jesús de Nazaret no fue indiferente ante el sufrimiento humano. Siempre paró su paso y posó su mirada y sus manos sobre las personas maltratadas de su tiempo. Especialmente dignificó a las mujeres. No podemos mirar hacia otro lado ante esta pérdida incesante de vidas humanas, el dolor y sufrimiento causados, así como la existencia de tantas actitudes, gestos, comportamientos, expresiones, prejuicios, que invisibilizan, silencian o incluso los justifican.

Como Iglesia, cada persona en nuestros ambientes de vida, en la familia, entre las amistades, el barrio, el pueblo, el lugar de trabajo, ..., necesitamos desechar toda forma de violencia y machismo, educar en valores que generen relaciones de igualdad, de libertad, desde el reconocimiento de la dignidad de las mujeres. Necesitamos unir nuestros esfuerzos en la denuncia y la reivindicación de medidas a favor de las víctimas de la violencia y su prevención.

*Delegación de Anuncio y Catequesis
Delegación de Caridad y Justicia
Delegación de Misiones
Cáritas Diocesana de Bilbao*